Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

Euskadi 2006

| **Dekretua** / Decreto: | **1480 / 2022** | **Erref.** / Ref.: | **NH/im** |
|---|---|---|---|
| **Gaia** / Asunto: | **GETXOKO UDALEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA / PLAN DE MEDIDAS ANTIFRAUDE DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO** | | |
| **Arloa** / Área: | ***KONTUHARTZAILETZA*** / **INTERVENCION** | | |
| **Interesduna** / Interesado: | | | |

## AURREKARIAK

Irailaren 30ean argitaratu zen irailaren 29ko Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema ezartzen duen HFP/1030/2021 Agindua. Hauxe ezartzen du 6. artikuluak: "Erabakiak hartzen edo betearazten dituzten eta Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren neurriak betearazten parte hartzen duten erakunde guztiek iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko plan bat eduki beharko dute, zeinaren bidez bermatu eta adierazi beharko baita dagokion jarduketa-eremuan bidezkoak diren funtsak erabili direla, aplikatu beharreko arauei jarraikiz, bereziki iruzurra, ustelkeria nahiz interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzei buruzkoak".

Kontu-hartzailetza, Diruzaintza, Langileak eta Antolaketa arloetako zinegotzi eskuordeak, 2022ko martxoaren 9ko mezu elektronikoaren bitartez, Udal Kontu-hartzailetzari agindu zion iruzurrari eta ustelkeriari aurre egiteko plana koordinatu eta egiteko.

## ANTECEDENTES

EL 30 de septiembre se publicó la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR). En el art. 6 se establece que "toda entidad, decisora o ejecutora, que participe en la ejecución de las medidas del PRTR deberá disponer de un Plan de medidas antifraude que le permita garantizar y declarar que, en su respectivo ámbito de actuación, los fondos correspondientes se han utilizado de conformidad con las normas aplicables, en particular, en lo que se refiere a la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de intereses".

Mediante correo electrónico de fecha 9 de marzo de 2022 el Concejal delegado de Intervención, Tesorería y Personal y Organización encarga a la Intervención Municipal la tarea de coordinar y elaborar un Plan Antifraude y Anti corrupción.

## OINARRI JURIDIKOA

Horrenbestez, irailaren 29ko Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema

## FUNDAMENTO JURIDICO

La obligación de disponer de un Plan de medidas antifraude viene por lo tanto determinada por el artículo 6 de la



Cod. Validacion: GET/DEK/2022/1480 KE7OrQkUgi

Sinatua: Firmado:
NURIA HERNANDEZ SOTO (KONTUHARTZAILE NAGUSIA / INTERVENTORA GENERAL) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA (Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako ordezkaria / Delegado del área de Hacienda, Promoción Económica y RRHH) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
AMAIA AGUIRRE MUÑOA (ALKATEA / ALCALDESA) Data: 2022/04/06 Fecha: 06/04/2022

ezartzen duen HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluak ezartzen du beharrezkoa dela iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko plana egitea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluak, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko xedez, Espainiari, Errekuperazio eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen onuradun den aldetik, ezartzen dizkion betebeharrak betetze aldera.

Planaren eduki zehatza aipatutako seigarren artikuluko bosgarren apartatuan arautzen da.

Idazkaritza Nagusiak, martxoaren 28an, planaren gaitasunari eta izapidetzeari buruzko txostena egin zuen.

Halaber, ikusi da Udal Kontu-hartzailetzak proposatu duen txostena (9/2022 txostena, martxoaren 29koa).

Dauzkadan eskumenak baliatuz,

**EBATZI DUT**

1.- Getxoko Udalaren iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko plana onestea, planaren artikuluetan nahiz horren eranskinetan jasotako edukiarekin (dekretu honi gehitu zaizkio).

2.- Planaren edukia helaraztea udal-administrazioaren mendeko arlo eta erakunde guztiei, udalkideei, eta horien zerbitzura dauden langileei, beren prozedura eta jardueretan hizpide dugun planean jasotako iruzurrari aurre egiteko neurriak txertatzen joan daitezen.

3.- Plana eta horren eranskinak udal-webgunean argitaratuko dira osorik.

Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR), con la finalidad de dar cumplimiento a las obligaciones que el artículo 22 del Reglamento (UE) 241/2021 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, impone a España en relación con la protección de los intereses financieros de la Unión como beneficiario de los fondos del MRR.

El contenido concreto del Plan se regula en el apartado quinto del citado artículo sexto.

En relación a la competencia y tramitación del Plan se ha emitido informe de fecha 28 de marzo por la Secretaría General.

En consideración también al informe propuesta que eleva la Intervención Municipal, Informe Nº 9/2022, de fecha 29 de marzo.

En uso de las competencias que me son propias

**RESUELVO**

1º.- Aprobar el Plan de Medidas Antifraude del Ayuntamiento de Getxo con el contenido articulado y sus cinco anexos, que se acompañan al presente decreto.

2º.- Difundir el contenido del plan a todas las Áreas y entidades dependientes de la administración municipal, corporativos, trabajadores y personal al servicio, a fin de que vayan incorporando en sus procedimientos y actividad las medidas antifraude recogidas en el mismo.

3º.- Publicar íntegramente el Plan y sus anexos en la página web municipal.

Cod. Validacion: GET/DEK/2022/1480 KE7OrQkUgi

Sinatua: NURIA HERNANDEZ SOTO (KONTUHARTZAILE NAGUSIA / INTERVENTORA GENERAL) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
Firmado: IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA (Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako ordezkaria / Delegado del área de Hacienda, Promoción Económica y RRHH) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
AMAIA AGUIRRE MUÑOA (ALKATEA / ALCALDESA) Data: 2022/04/06 Fecha: 06/04/2022

4.- Iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko plana onesten duen dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jende guztiak udalaren erabakiaren berri izan dezan, eta adieraziko da udal-webgunean kontsultatu ahalko dela.

4º.- Publicar el presente decreto de aprobación del plan de medidas antifraude en el Boletín Oficial de Bizkaia, para general conocimiento de la decisión municipal, con indicación de su consulta a través de la página web municipal.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.eus/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Cod. Validacion: GET/DEK/2022/1480 KE7OrQkUgi

Sinatua: Firmado: NURIA HERNANDEZ SOTO (KONTUHARTZAILE NAGUSIA / INTERVENTORA GENERAL) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA (Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako ordezkaria / Delegado del área de Hacienda, Promoción Económica y RRHH) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
AMAIA AGUIRRE MUÑOA (ALKATEA / ALCALDESA) Data: 2022/04/06 Fecha: 06/04/2022